

## Altza-Larratxo



Alberto Elosegi

# Larratxoko brasildarra

**Brasilen jaioa da Deyse Araujo de Oliveira. 48 urte ditu, eta ia bizitza erdia Donostian eman du: Parte Zaharrean lehenik, eta azken 18 urteak Larratxon. Hamaika kontutaz mintzatu gara Deyserekin.**

Raul Perez

**E**gun, bikote askok ezagutzen dute elkar Internet bidez. Duela hogeitau urte, ordea, inork gutxi zuen Interneten berri. Hala ere, bazeuden beste bide batzuk herrialde ezberdinetako jendea harremanetan jar zedin. Deyse Araujo brasildarrak gutun bitartez ezagutu zuen gerora senarra izango zen donostiarra. Hasieran Brasilen bizitzeko asmoa zuten, baina Deyseren senarra bertan egokitu ez eta Donostiara bizitzera etorri ziren: Parte Zaharrera, hain zuzen. Azken 18 urteak, berriz, Larratxon eman dituzte.

Deysek azaldu digunez, hasieran kosta egin zitzaion Euskal Herrira moldatzea, baina egun pozik dago. Batez ere

gaixo egondako bolada luzean, Larratxoko bizilagunek berarekin izandako adeitasuna biziki estimatu zuen. Egundakotasuna erabat gaituta du, eta geriatrian lanean dihardu.

Donostiako txoko guztien artean, Urgull gustatzen zaio gehien. Parte Zaharrean bizi zenean, askotan igotzen zen Urgullera paseatzera. *"Amak esaten dit sekulako zorzea dudala, Rion bizi eta gero Donostiara etorri izanagatik, munduko hiri zoragarrienetakoak direlako biak"*, esan digu. Rio eta Donostiaren arteko desberdintasunen bat aipatzeko eskatu diogu: *"Donostia hazten ari da, baina badago leku batzuetatik beste batzuetara oinez joatea. Rion, ordea, ia ezinezkoa da, askoz ere handiago da-eta"*.

### Indigenak gogoan

Deyse Araujo Rio de Janeiroko Bento Ribeiro auzoan jaioa da eta bere herrialdera joanez gero, zein leku bisitatu beharko genukeen galdetu diogu. Brasilgo ipar-ekialdea gomendatu digu: Pernambuco, Bahia... Brasil aipatzerakoan, jende askori futbola eta inauteriak etortzen zaizkio burura, baina Deysek Brasil askoz gehiago dela nabarmendu digu: *"Esaterako, Brasilen musika mota asko dago, eta azken sasoiari, kaleetan eta plazetan jotzeko ohiturak gora egin du"*. Brasilgo indigenei buruz hitz egiteko ere ez du aukera galdu. SOS Arrazakeria elkarteko kide gisa, bere herrialdeko indigenak izan ditu hizpide Donostiako zenbait ikastetxe-

### Piñata igandea atzeratua

Joan den igandean ospatzeko zen inauterien konpartsen desfilea bertan behera geratu zen, eguraldi txarra zela-eta. Okerrik ez bada, desfilea igandean, hilak 7, izango da. Konpartsak Lau Haizeta ingurutik aterako dira 11.30ean.

### Emakumearen Astea

Hilaren 8tik 12ra bitartean, Emakumearen Astea egingo da Casares kultur etxean. Ekimaz guztiak azken egunean, martian, izango dira. Casares kultur etxean izango dira: 10.00etan: Hona hemen egitaraua.

Astelehena 8: Desi Estera-  
ren kontzertua eta lunch-a.

Asteartea 9: "Las mujeres de  
verdad tienen curvas" filma.

Asteazkena 10: Mahai-  
jokoa eta baxeniko idazleria-  
kin eta Elena Asasti psikologo  
eta sexologoarekin.

Osteguna 11: Emakume  
Astearen aldean "Un busto al  
cuerno" antzezlan.

Ostirala 12: Arria Lintziñ  
hotolean, izena emateko auzo-  
ko emakume elkarteetako  
barru ardatzo.

tan emandako hitzaldietan: *"Txikitari, indigenak alfer hutsak zirela esaten ziguten, ez zutela lanik egin nahi. Hala ere, hazi ahala jabetu gara hori ez dela egia. Hau da, bizitzeko adina baliabide izateko lan egiten dutela. Beraien mitoa, hizkuntzak eta gainera-koak errespetatu behar dira"*.